BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2080

EBAZPENA, 2014ko apirilaren 30ekoa, Industriako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei laguntzak emateko deialdia argitara ematen duena (2014ko ekitaldia).

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduaren bidez (2009ko urriaren 20ko EHAA, 201. zenbakia) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira. Agindu hori 2010eko apirilaren 21eko Aginduak aldatu zuen (2010eko maiatzaren 4ko EHAA, 81. zenbakia).

Diru-laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren 2014ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 4/2013 Legean horretarako izendatutako aurrekontuko partidatik aterako dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dituen 2009ko urriaren 20ko Aginduaren 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz, agindu horretan 2014ko ekitaldirako ezarritako laguntzetarako deialdia egin behar da, eta horretarako beharrezkoak diren arauak eman behar dira.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 10. artikuluan ezarritako eskumenaz baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko urriaren 20ko Aginduan aurreikusitako laguntzen deialdia egitea. Agindu hori 2009ko urriaren 20ko EHAAn, 201. zenbakian, argitaratu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dira bertan. 2010eko apirilaren 21eko Aginduak aldatu zuen aipatu agindua (2010eko maiatzaren 4ko EHAA, 81. zk.).

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deitutako laguntza horiek finantzatzeko, guztira, 600.000 euro erabiliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2014ko Aurrekontu Orokorretan arlo horretarako izendatutako aurrekontu-kredituaren kargura.

Deialdi honen kontura eman beharreko laguntzen zenbateko osoak ezingo du gainditu artikulu honetan jarritako diru-kopurua, edo kopuru hori eguneratzearen ondorioz sortutakoa, baldin eta indarrean dagoen legeriari jarraituz kredituen arteko loturarik edo aurrekontu-aldaketarik badago. Beraz, diru-kopuru hori agortzen den unetik aurrera ez da laguntza gehiagorik emango, xedapen honen eraginkortasuna bertan behera geratuko baita une horretan. Halakorik gertatuz gero, egoera horren berri emango da Industriako sailburuordearen ebazpenaren bidez.

3. artikulua.– Baldintzak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekluster sektorialtzat jotzen diren enpresa-elkarteei bideratutako laguntzak arautzen dituen Aginduan aurreikusitako laguntzak jasotzeko, agindu horretako 4. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek.

2.– Halaber, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Nazioartekotze Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 PK, Gasteiz) edota sail horren lurralde-bulegoetan aurkeztu beharko dituzte eskabideak eta dokumentazio osagarria eskatzaileek, hain justu ere, zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako eraren batean.

3.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2014ko ekainaren 16an amaituko da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 30a.

Industriako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GARCIA DE MOTILOA UBIS.